

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Arabako Foru Aldundia

BIDE AZPIEGITUREN ETA MUGIKORTASUNAREN SAILA

Foru Gobernu Kontseiluaren 418/2020 Erabakia, irailaren 15ekoa. Onestea Begoña Monforte Martínez izendatzea behin-behineko langileek betetzekoa den Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuaren idazkari lanpostua betetzeko

Arabako Foru Aldundiaren Antolaketa, Funtzionamendu eta Lege Araubideari buruzko abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauak 8.11 artikuluan eta Foru Kargu Publikoen Jarduna arautzen duen uztailaren 11ko 10/2018 Foru Arauaren laugarren xedapenean jasorikoarekin bat etorritik, Foru Gobernu Kontseiluari dagokio diputatu nagusiaren edo dagokion foru diputatuaren proposamena entzun ondoren, foru aldundiko lanpostu zerrendan jasota dauden behin-behineko konfiantzako lanpostuak beteko dituztenak izendatzea.

Horregatik guztiagatik, Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuak proposatuta, abenduaren 18ko 52/1992 Foru Arauaren 8.11 artikulua aitortzen dizkidan ahalmenak baliatuz, eta Foru Gobernu Kontseiluan gaur bertan egindako bilkuran gaia aztertu aztertu ondoren, honakoa

ERABAKITZEN DUT

Lehenengoa. Begoña Monforte Martínez izendatzea, behin-behineko langileek betetzekoa den Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatuaren idazkari lanposturako (kodea: 1300.003). Eragin-data: 2020ko irailaren 15ean.

Bigarrena. Erabaki hau ALHAOn argitaratzea.

Vitoria-Gasteiz, 2020ko irailaren 15a

Diputatu nagusia

RAMIRO GONZÁLEZ VICENTE

Bide Azpiegituren eta Mugikortasunaren Saileko foru diputatua

MARIA BLANCA DE LA PEÑA BERNAL